

Enpresa ideia sortzen:

Guk hasieran, faltan botatzen genuen gazteentzat harremantzeko baliabide berri eta seguru bat, eta horregatik hasi ginen ideia hau garatzen. Gainera, gazteek beste pertsonekin harremana edukitzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Ideia asmatutako aplikazio batetik atera dugu, baina ez dago sortua, izan ere, aplikazio hori beste kirol batzuekin eginda dago eta guk futbolera eraldatu dugu, beraz, beste aplikazio horiek eskeintzen ez dutena eskeintzen dugu.

Gazteen sozietatean, herreman falta nabaritu genuen, eta hori asetzeko, baliabide asko pentsatu genituen, online egitea, chat taldeak egitea, baina azkenean, baliabide osasuntsuago bat egitea pentsatu genuen, horrela, harremantzeaz gain, osasuntsu egoteko forma bat izateko.

Hasiera batean, brainstorming bat egin genuen denak batera bakoitzak ideia bat proposatzen kirolean eta osasunerako egokitutak. Ideia oso desberdinak izan genituen, Furgofarra osasuntsuzko enpresa bat, kirol txapelketak sortzen dituen elkarteak, futboleko palikazio bat jendea futbolean jolasteko, mendi bueltak antolatzen dituen elkarte bat eta osasuntsuak diren janariak eta produktuak saltzen dituen enpresa bat. Ideiak aztertu eta gero produktuak saltzen dituen enpresa asko daudela eta edonon erosten ahal direla ondorioztatu genuen, beraz, baztertu genuen. Berdina gertatu zen mendi bueltenarekin, jendea ez zela animatuko pentsatu genuen eta alde batera utzi eta beste ideietan zentratu ginen.

Azkenean, futbol aplikazioa egitea pentsatu genuen. Honek baliabide guzti horiek sartzea eskaini zizkigun, gainera, oso idei bideragarria da, oso gauza gutxi behar direlako hau zehazteko.